

PARTAGER ET CULTIVER SES PASSIONS GURE PASIOAK PARTEKATU ETA ZAINDU PARTATJAR E CULTIVAR LAS SOAS PASSIONS



Bayonne, une ville au potentiel unique pour
que chacun.e puisse cultiver ses passions.

9

Kultura eta kirol eraikin garrantzitsuak eta ondare eraiki bikaina aurkitzen dira Baionan baina haren aberastasuna bere ondare immaterialean, arlo guzietan jarduten duten hainbat elkarteetan datza: kirola, kultura, elkartasunak, zientziak, gastronomia, etab, hainbat peñak aipatu gabe, atzematen dira ere. Guri dagokigu ondare immaterial hau biziarazten eta bilakarazten bakoitzak bilatu ahal dezan eta bere pasioak gara ditzan, artista eta kirolari zale bezainbat profesionalak ere lora daitezen, eta euskarari leku osoa eskainia izan zatzaion. Horretarako, eta guzien kultura eskubideak bermatzeko gisan, kirol eskaintzaren kudeaketa eta gertakizun handien antolaketa sakonki berrituko dugu, tokiko kirol eta kulturako eragileak, bai eta herritarrak gehiago inplikatzeko.

Gure proposamenak:

a. Baionaren kultura eskaintza denen artean eraiki

Hiria argira ekartzen duten diziplina anitzeko obrak (mediatekak, museoak, ikuskizun gelak, zinemak, galeriak), interes handiko ondare material eta immaterial historikoa eta artista eta kolektibo andana baten lanaz gozatzeko aukera eskaintzen duten hedadura handiko kultura hedapen artistikoko erakunde desberdin anitz atzematen ditugu Baionan.

- Kulturaren Mintegi bat antolatu heldu diren urteetarako orientazioak finkatzeko, biztanleen behar eta nahiei egokiturik.
- Hautetsiez, zerbitzu buruz, langilez, elkarteetako kidez, artista eta biztanlez osatu kultura programazio batzorde bat plantan ezarri kultura eskaintza zehazteko gisan.
- Baionarrei Bonnat-Helleu Museoaz jabetzeko laguntza eskaini eguneroko kultura lekua bilakarazteko (hezkuntza artistikoak, ekimenak, hitzaldiak, helgarritasuna, prezioak...).
- Diru-laguntzak emateko egin-molde berria, gardena, bidezkoa eta artista profesional eta amateurren aribide eta beharren garapenari egokitu eskaini.
- Sorkuntza garaikidea sostengatu Hiriaren ondarea aberasteko: obra iraunkorren (ikusmeneko arteak) eta obra iragankor eta immaterial (ikuskizun bizia) baina dokumentatuak eta artxiboetan sartuak.
- Manatze publiko artistikoa sustatu (%1 artistikoa) lurraldeko artistekin, diziplina guztiak nahasirik, aurreikusi eraikitze obra handiak hurbiltzerakoan.
- Herrian dauden konpainiak eta artistak sustatu.
- Langileak, artea eremu publikoan hedatzeko formatu.
- Lurraldearen bizkortasuna kulturen arteko interaktibitateak lehenetsiz garatu.

b. Osasun kirol eta kirol amateurraren praktika sustatu

Baionan, elkarte ehun bizkorrean eta herriko ondare garrantzitsuan bermatzen da mota guzietako kirol praktika -lehiaketa, hezkuntza, aisialdia, ongizatea edo osasuna- baina eskaintzak ez die behar bezala auzotegi guzietako publiko desberdinei erantzuten.

Ekipamenduak zaharkituak dira, diru-laguntzak apaltzen dira, laguntza dispositiboak ez dira gehiago egokiak eta batzuetan emazteen kirolaren kaltetan. Guziei, biziko adin guzietan eta auzotegi bakoitzean, kirol eta gorputz ariketara zinezko berdintasun osoz heltzeko parada bermatu nahi diegu.

- Hainbat iritzi kontutan hartuz (kluben proiektuak, mistotasuna, helgarritasuna, osasun kirola, autofinantzaketa, praktika maila, urririkako lana, ...) praktiken eta beharren garapenari egokia den diru-laguntzak eskaintzeko egin-molde garden eta bidezko berria zehaztu klubekin.
- Diagnostiko objektibo bati jarraikiz (helgarritasuna / homologazioa / segurtasuna / eragina ingurumenean / erabilpenen aniztasuna eta mistotasuna...) finkatu kultura eta kirol ekipamenduen UIP bat (urte anitzeko inbestizamendu plan lehenetsi eta zenbatua) zehaztua.
- Emazteen kirola garatzen lagundu Baionan:
 - Klubei eskaini diru-laguntzen tresna erabiliz emazteen praktika lehenetsi dezaten (oren tarte kopuru berdinak, ber kalitatea aldagelak bezalako hornidurei, argiteriei edo zelaiei dagokienez, sail berriak irekitzeko...).
 - Irizpide azkarra bilakaraziz ekipamendu berriak lortzeko
 - Emazteen kirolari leku bat eman ez herriko etxeko komunikazioan eta hiriak antolatu eginkizunetan
 - Emazteen kirolari lehen irakaspen saioak doitu Baionako auzotegi desberdinetan, prezio apalagoetan edo urririk.
- Kirol ekipamenduak herritarrei ireki, asteburuetan eta oporretan erabiliak ez diren tarteetan garatu.
- Auzotegi guzietan ekipamendu « zalu eta irekiez » hornitu: frontoiak, city stade, ping-pong mahaiak, osasun-kirol ibilbideak... eta ekipamendu hauek zaindu.
- Handisport-en (Elbarrikirol) sustapenean parte aktiboa hartu.

c. Guziei haien pasioak bizitzea ahalbidetu

Nahi dugu Baionako kultura eskaintza aberatsa bai eta haren elkarte munduak denentzat helgarria izan daitezen: zaharrei bezainbat seniorrei, ahalmen urriko egoeran dauden pertsonen, gizonen eta emazteen ere. Erne egonen gara ere auzotegi guzietan molde berdinean ezarriak izan daitezen kirol eta kultura ekipamendu eta animazioak. Baionako hizkuntza aniztasuna islatu behar du ere, euskara bakoitzari haren lekua ematen dion hizkuntza izan dadin.

- Seniorrei, EHPAD-etan edo hauetatik kanpo, zuzenduak diren kultura eta kirol ekintzak sustatu, Biztanle Etxeekin, besteak beste, lankidetzan.
- Gazteei, proiektuak edo tokiak (gaztetxe, errepika gelak...) haiek berek kudeatzeko parada eskaini, ikuskizunen buxetaz, komunikazioaz edo seguritateaz formakuntzak gisako laguntzak eskainiz.
- Kirol, kultura eta aisialdi aktibitateak euskaraz gozatzeko eskaintza garatu euskara, eskolatik edo familiatik kanpo erabiltzeko gisan.
- Haurrak zaintzeko sare elkarkidea esperimentatu guraso bakartuek errazkiago arizan daitezen kirol edo kultura aktibitate batean.

- Artistei errepika eta hedapen esparruak segurtatu haien praktika profesional eta/edo amateurraren kariatara auzotegika.

d. Peñak segitu eta babestu

80 hamarkadatik aitzina sortzen dira peñak, elkarte areto pribatuak, usu interes bateratua, kirola, euskal kultura, zezenketa, gastronomia... partekatzen duten gizonez bakarrik osatuak. Peñen eredua aldatu da eta gaur egun 70 dira, gehienak, elkarbizitzako arauak finkatzen eta 2017ko irailean izenpetu itun baten inguruan federatuak. Hauetako hamabost bat aterpetzen ditu Hiriak -urririk- haren jabetza pean dauden Baiona Handi eta Ttipiko harresietan. Batzuek elkartasun arloan jarduten dute edo Hiriko animazioan urte osoan edo Baionako besten kariatara parte hartzen dute. Beste batzuk autarkian funtzionatzen dute. Hala ere, halako harremanen formalizazioa eskas da peña bakoitzaren artean haien eginkizuna elkarbizitzan, hiriaren animazioan, elkartasunean indartzeko.

- Hiru urteko hitzarmen bat sortu Hiri eta peña bakoitzaren artean denek osoki parte har dezaten hiriaren bizian: animazio proposamenak, lekuen esku uzteak kultura aktibitateetarako (errepikak, emanaldiak, hitzaldiak...).
- Peñak segitzeaz arduratuko diren erreferente administratibo bat eta hautetsi bat izendatu.

e. Herri eta familia arteko gertakizun handiak

Hitzordu nagusiak bilakatu dira Baionako egutegian hiriak antolatu gertakizun handiak. Jendarte ingurune eta belaunaldi guzietako biztanle guzientzat, besta eta atsedenaldiak bilakarazi nahi ditugu, giro lasaitu eta inklusiboan.

- Xingar Feriak ez luke hamar milakako pertsona erakarrarazten dituen bigarren Baionako Besta bilakatu behar. Tokiko dinamiketan egoki sartu giza izariko gertakizuna izatea nahi dugu.
- Ohituraz, boteretsuak kritikatzeko parada herritarrei ematen dien deskonpresio balbula bat dira Inauteriko ospakizunak. Ohitura hau mantendu duten hego Euskal Herriko inauteriak biziki popularrak dira eta hauetan oinarrituko gara adierazpen demokratikoari leku osoa eskaintzen dion besta giroko herri hitzordua bihurtzeko.
- Eguberriko magia eta Olentzeroren tradizioa urte bukaerako herri eta familia hitzordu baten gisara biziarazten jarraitu, animazioak eta apainketak auzotegi guzietara hedatuz, partekatze momentu hau herritar guziek goza dezaten eta ez dadin bakarrik herri barneko merkatal erakusberina izan.
- Arènes en Fête, publiko guziak auzotegi guzietan erroto lagun, herri giroa eskainiz denei irekia zaien ikuskizun eskaintza aldi nagusia bilakarazi, eta ez musika programazio eta kontsumo aldi soila.